

EGUNEKO GAIAK

EG3

NEVADAKO FAMILIA EUSKALDUN BATEN HISTORIA

Nevadan sortu eta haurtzaroko ama hizkuntza euskara izan zuen Joan Erreak, Nafarroa Beheretik Ameriketara bizimodu berri baten bila joandako gurasoengandik ikasita-

koa. Idaztea afizio bihurtuta, bere aitaren bizi bidaia koplatan idatzi zuen duela hamar bat urte. Pello Salaburuk edizioa egin eta Pamielak liburua argitaratu du orain.

Ariane KAMIO | DONOSTIA

Bankan sortutako umea da Marie Jeanne Goyhenetche. Haurtzaro zaila pasatzea egokitu zaio; baliabiderik gabeko familia batean jaio da. Aita, Lehenengo Mundu Gerratik desertore, Estatu espainolean da. Hamar senideko etxea da haiena, adingabeko haur txikiz osatua, eta oinarrizko beharrianak asetzeko zailtasunez betetakoa. Kontrabandoan diru apur bat biltzea lortzen du aitak eta noizean behin pasatzen da mugaz bestaldera sosak banatzera. Irabaziak, ordea, apaiz duen anaiari ematen dizkio. Gizon zitala, bi arrazoirengatik; dirua berak nahi bezala erabiltzen duelako batetik eta, bestetik, Marie izeneko neskatxa bost urterekin bere etxera zerbitzatzera eramango duelako, etxean bezain besteko gosea pasaraziz.

Urte latzak izango dira bereztzat. Anaia bera Ameriketara partitzen ikusiko du. Dirua biltzer gero, hara joateko txartela erosiko diola aginduko dio alde egin aurretik. Eta hitza beteko du. 18 urterekin abiatzen da Marie ozeanoaren beste aldera.

Harrigarria egingo zaio bizi-modua aldatuko dion bidaia hura. Azal beltzeko pertsona bat lehen aldiz ikusiko du, eta pentsatuko du aurpegia margotua duela. Mundu berri baten seinaleak jasotzen hasiko da trantsizio horretan bertan.

Nevada izango du helmuga; Currie herrixka, zehatzago. Neskatxo gazteak ez du inor zain izango, baina zaldi pare batekin gurdia kargatzen ari den gizonezko bat ikusiko du; euskaraz ari da haiekin. Arnaud Paris -Lasa herrian sortua- izango du bidaide bere lehenengo egunetan, baita gerora ere. Ostatu batetik bestera lanean hasi eta ezkondu egingo dira. Haien hurrengo bizilekua mendia bera izango da, artzaintza baitu lanbide senarrak. Hiru seme-alabekin, arrantxo bat erositako dute, eta beste bi senide izango dituzte; bost orotara. Mendian bizitako denboran soilik euskara izango dute ama hizkuntza haurrek, eta gerora, arrantxoan, aitak ingelesa



Bizi bidaia bat koplatan

irakasteko irakaslea ekarriko du, inguruan oraindik zutik dagoen eskola bat sortuz. Joan Errea -sortzez Joan Marie Paris- izango da senideen artean alaba bakarra. Eta Nevadako familia euskaldun horren gakoa.

Aurkikuntza

Hiru urte inguru dira Pello Salaburuk (Arizkun, 1951) EHuko irakasle, euskalari eta idazleak Nevadara egin ohi dituen joan-etorri horietakoa bat egin eta "My Mama Marie" zeritzan liburua deskubritu zuenetik. Joan Erreak sinatua, Marie Bankako gazte haren historia ardatz hartzen zuen. «Harrituta gelditu nintzen istorioarekin», dio Salaburuk. «Berez ez du ezer, oso lokala da, baina era berean oso unibertsala». Hain hunkigarria

egin zitzaion Mariren bueltan joandako kontakizun hura, ezen Nevadara egindako ondoko bidaietako batean hiru egun hartu zituen liburuan aipatzen ziren toki guztiak bisitatzeko. Bere egonaldiaren azken egunean unibertsitatetik dei bat jaso zuen esanez Joan Erreak jakin bazekiela handik zebilela eta bera ezagutzeko gogoz zegoela. «Kasualitatez azken egunean bera bizi den tokian egin behar nuen gaua». Eta egon zen Joane-kin. «80 urte baino gehiago ditu eta baditu halako zailtasun fisiko batzuk. Euskaraz hitz egiten nion nik eta ingelesez erantzuten zidan berak, agian ez zuelako ongi entzuten». Ordu pare batez luzatu zen Pello Salaburuk Joan Errearen etxera egindako bisita. Atera aurretik, Erreak:

«Badut zuretzat opari bat». Mahai gainean jarri zizkion ordenagailuz idatzitako hiru liburu gehiago, argitaragabeak denak. Aitaren, senarraren -Baigorrikoa zuen eta zendua zen- eta anaiaren historiak biltzen zituen lan haietan.

«Hartu egin nituen. Eta etxera itzultzean hasi nintzen aitaren historia irakurtzen. Harritu nintzen zeren lehenbiziko orrialdea euskaraz zegoen, euskara samur eta politean. Hori bai, ortografikoki desastre hutsa». Joanen alaba Lianneri deitu zion orduan eskaera bat egiteko; idatz zezala aitari buruzko historia osoa euskaraz. «Jakin nahi nuen zein euskara mota garatu ote zuen emakume horrek han. Ez nuen ongi ulertzen, baina banuen interesa ikusteko nola ttikitari be-

EUSKARAZ

Mendian eman zituzten urteetan, Mariek eta Arnaudek euskaraz soilik hitz egiten zieten beren seme-alabei. Gero, arrantxoan, maisu batekin ingelesa ikasi zuten. Ondoa eraikitako eskolatzeko bat zutik dago oraindik gaur egun.

re aita eta amagandik Nafarroa Behereko euskara ikasi eta zer geratu ote zitzaion hartatik». Alabaren erantzuna are harrigarriagoa izan zen, hamar urte lehenagotik eginga baitzuen euskarazko lana. «Bidali zidan eta izugarria zen. Ez zuen solik aitaren historia kontatzen, baizik eta kontatzen zuen euskaraz eta gainera koplatan, errima oso aberatsekin. Guztiz harritua geratu nintzen. Euskara aldetik oso polita da».

Koplatan

Amaren kasuan ez bezala –“My Mama Marie”–, aitaren bizitza oinarri duen lanaren kontakizuna ez da lineala. Arnaud Parisen bizimodua koadroen bitartez kontatzen duela esan daiteke; “Arrantxoa”, “Aita”, “Aitatxi”, “Ama”... Eta koadro bakoitza orrialde bateko edo biko koplada. “Aita deitzen zen gizona (A man called Aita)” izenarekin, eta Joan Erreak sinatuta eta Pello Salaburuk editatuta, Pamiela etxeak argitaratu du orain.

«Liburuak baditu bi parte. Neronek egiten dut sarrera luze bat, zeren historia bera oso polita iruditzen zait. Berak kontatzen ez duena orrialde batzuetan kontatzen du. Oso hunkigarria da. Eta gero, bigarren zatia da berak idatzitako bertso horiena».

Salaburu bera arduratu da idazlanen edizioa egiteaz. «Ahal bezain gutxi ukitu ditut [koplak]. Ortografia bakarrik. Ortografia batu bat eman diot, gaurko sistemari hobeki egokitzen dena, baina besterik ez. Liburuak ere baditu 200 ohar hurbil, irakurleak behar bada zailtasun batzuk izan ditzakeelako noiz-behinka».

Izan ere, Joaneke erabilitako ortografia ez da batera sistematikoa. «Batzuetan gure ‘s’ guztiak ‘z’ bihurtzen ditu, nabaritzen da ingelesaren ahoskeraren eragina gauzak idazterako orduan», azaldu du Salaburuk.

Ezagutzen ez zituen hitzak ere aurkitu ditu jardun horretan Salaburuk, Orotariko Hiztegian ere lekukotasun gutxi dituztenak. Antza, Joaneke darabiltzan hitzak arruntak ziren inguru

hartan eta bere gogoan geratu dira. «Egon behar izan dut hitz guztiak banan-banan ikusten, aditz forma guztiak begiratzen eta horretaz aparte, bertsoetan badira bere bizitzari egiten dizkion erreferentzia pila bat».

Aitarengandik datorquio Joani kopleterako afizioa. Jesuitetan ikasia zen Arnaud Paris eta momentu batean erabaki behar izan zuen jesuita egin edo atera eta beste zerbaitean jardun. Ateratzea erabaki zuen eta Ameriketara joatea. Baina jesuitetan berak zituen zaletasun batzuk landu zituen; «musika, adibidez, irakurtzea ere asko gustatzen zitzaion». «Beraz –jarraitu du Salaburuk– mundu horretan bera gizon kultu bat zen edo kultura atsegin zuen gizon bat zen. Klarineta jotzen zuen, dantzari ona zen, bertsoak egiten zituen eta seme-alabei ere erakutsi zien nola egiten ziren. Hortik dator, beraz, liburuak kopletan idaztearen erabakia».

Liburuak hiru toki desberdinetan aurkeztu du Pello Salaburuk –guztietan bertsolari batek lagunduta–; Bankan, Baigorri eta Elizondan. Eta aldi bakoitzean liburuarekin zerikusia duen datu berriren bat iritsi zaiola ohartarazi du. «Denek badituzte ezaugarri komun batzuk. Aurkezpenaren ordu eta erdi pasatzen dut eta jendea isil-isilik gertatzen da, oso erne, eta oso hunkituta. Beste ezaugarri bat azpimarratzea, eta horrekin pozik nago, da segurua naizela batzuek bere bizitzan lehenbiziko aldiz erosi dutela liburu bat. Historia honek bat egiten du alde horretako jende asko



Lehenengo orrialdeko irudian, Pello Salaburu, Joan Errea –eserita– eta Lianne alaba. Ondean, Marie Goyhenetche eta Arnaud Paris, ezkontza eguneko argazkian. Behean, Arnaud Paris. Pello SALABURU - ERREA FAMILIA

bizi izan duen historiarekin, baina unibertsaltasunak ere lotzen ditu».

Marie Jeanne Goyhenetche, Arnaud Paris eta haien alaba den Joan Errearen historiak badu, ordea, beste hari muturririk. Argazki zaharrak eskatu eta Joaneke, irudiez gain, ingelesez idatzitako beste lan bat igorri zion Salabururi. Azken orrialdetik irakurtzen hasita, “Erratsu” zioen hitza aurkitu zuen. «Zer ote da hau?», galdetu nuen nire gogorako. Eta deskubritu dut idazlearen ahizpa bat Erratzun dagoela ezkondua».

Honela da istorioa: Arnaud Paris, Joanen aita, minbiziarekin hiltzen da eta Marie, Bankako neskatxa gazte hura, alargun geratzen da 42 urterekin eta bere kargu bost haur dituela. Bi urtetara, etxetik desagertzen da eta joaten da San Frantziskora –«Joaneke ez du esaten inondik zergatik desagertu den ama»–. Han berriro ezkondu eta berriz ere batu alaba bat, Joanen ahizpaordea dena, baina askoz ere gazteagoa. «Marieke alaba duen aldi berean Joan ere haur baten esperoan da». San Frantziskon jaioetako alaba hura Erratzun bizi da gaur egun. «Liburuak jada inprentan zegoela jakin du harguztia. Berak osatzen du historiaren parte bat».

